

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Festa Nazionalaren ekitaldi nagusietan parte hartu du Madrilen

Desfile militarra eta agintariei harrera Berorren Maiestate Erregea eta Asturiasko Printzeak izan dituzte buru

Viernes, 12 de octubre de 2012

Berorren Maiestate Erregea, Berorren Maiestate Erregina, Asturiasko Printze Errege Gorentasunak eta Elena Infanta Errege Gorentasuna Festa Nazionalaren ekitaldien buru izan dira gaur goizean Madrilen. Bertan izan da Yolanda Barcina Lehendakaria Foru Komunitatearen ordezkari gisa.

Lehendakaria Bandera Nazionalaren eta Espainaren alde euren bizitza eman dutenen omenaldian izan da, baita desfile militarrean ere. Ondoren, agintariei eskainitako harreran parte hartu du Erregeen Jauregian.

Goizeko ekitaldia Neptunoko Plazan hasi da Berorren Maiestate Erregeen iritsierarekin. Bertan, Mariano Rajoy Gobernuak lehendakariaren agurra jaso dute, bai eta Pedro Morenés Defentsa Ministroarena, Ignacio González Madrilgo Komunitateko lehendakariarena eta Ana Botella Madrilgo alkatearena ere, beste agintarien artean.

Berorren Maiestate Erregeek ohore militarrik jaso dituzte eta, ostean, agintarien agurra, horien artean Barcina Lehendakariaren. Ondoren, Bandera Nazionala eta Espainiaren alde euren bizitzan eman dutenak omendu dituzte.

Jarraian, lurreko eta aireko desfilea egin da. Carlos V. Enperadorearen plazan (Atocha) hasi eta Colon Plazan amaitu da, Prado Pasealekua, Cánovas del Castillo Plaza eta Recoletos Pasealekua igaro eta gero. Indar Armatuak 3.000 militar baino gehiagok, 147 ibilgailuk eta 55 aireontzik parte hartu dute.



Erregeak Barcina Lehendakaria agurtu du ekitaldiaren hasieran.

Erregeen Jauregian harrera

Ondoren, Madrilgo Erregeen Jauregian, Mariano Rajoy Brey Gobernuko lehendakaria buru izan duen Espainiako gizartearen ordezkaritza bati harrera tradizionala egin dio Errege Familiak.


Lehenbizi lehen agintariak hartu ditu Gasparini Aretoan eta ondoren, Zutabe eta Alabardarien Aretoan, Barcina Lehendakaria agurtu du beste ordezkarien artean.

Harrera ekitaldian, Yolanda Barcinak beste erkidegoetako lehendakariekin eta ekitaldira gonbidatutako gainerako agintari eta pertsonekin solasean egoteko aukera izan du.



Barcina Lehendakaria Letizia Printzesarekin Erregeen Jauregiko ekitaldian.

Galería de fotos



Yolanda Barcina, beste erkidegoetako lehendakariekin, desfile militarrean.



Yolanda Barcina Gaztela-Mantxako lehendakariarekin hizketan.